



# PLAZAN buletina ELKANO 500

## 6. zenbakia

[On the shoulders of giants](#) 2  
Aimar Intsausti Bello

[Munduari bira 4-6 urteko  
haurren begiradetatik](#) 3  
Nahia Intxausti Intxausti

[Mira-biraka Getaria aldean](#) 4  
Beatriz Zabalondo Loidi

[Biblioteka txokoa](#) 5

# On the Shoulders of Giants



“On the shoulders of giants” erabiltzen dugu jakintzak aurrera nola jarraitzen duen adierazteko. Euskaldunok “izan zirelako gara, garelako izango dira” esaera ere badugu horretarako. Guk ere badakigulako belaunaldi bakoitzak aurrekoen jakintza duela oinarri, eta oinarri horretatik sortzen duela bere ezagutza. Aurrekoen jakintza da gure abiapuntua, eta ez jakintasunak dira gure mugak.

Elkanok eta bere kideek 1522an bukatu zuten munduaren itzulia bere handitasunean ulertzeko ezinbestekoa da garai horretan zituzten gabezia teknologikoak kontutan hartzea. Gabezia hauen artean nabarmenena nabe bat itsaso zabalean modu egokian kokatzeko zituzten arazoak dira. Jakina da itsasoan latitudea kalkulatzeko erraza izan dela gizakiak izarrak identifikatzen hasi zirenetik. Ipar hemisferioan, adibidez, nahikoa da izar polarrak horizontearekin osatzen duen angelua neurtzea latitudea ezagutzeko. Hala ere, itsas zabaleko longitudearen kalkulua arazo larria zen Elkanoren garaikideentzat.

Longitudearen kalkulua, teoriarik, erreferentzia puntu baten eta nabearen posizioaren arteko ordu-aldaketa neurtuta lortzen da, baina XVI. mendean itsas zabalean ordua modu egokian kontrolatzea ezinezkoa zen. Nahiko erraza zen ontzia zegoen tokian zein ordu zen jakitea eguzkiaren kokapenaren arabera, baina arazoa abiapuntuan izango zuten ordua jakitea zen. Ordua zehaztasunez kontrolatzea XVIII. mendearen erdialdean lortu zen itsas kronometroa garapenarekin.

Aurrerapen teknologiko horrekin longitudea kalkulatzeko ere oinarria lortu zuten, eta ondorioa, itsas zabaleko kokapena zehaztasunez kalkulatu ahal zuten nabigazioa beste maila batera eramanda.

Honek erakusten digu helburu ezberdinekin garatutako teknologiek askotan guztiz ezberdinak diren eronketan aurrera egiteko balio digutela. Kronometroari esker nabigazioa, merkataritza eta pertsonen mugimendua erraztu zen bezala, gaur egungo eronka nagusien irtenbide aurkitzeko, eskura ditugun eta garatzen ari garen teknologiak modu egokian erabiltzen ikasi behar dugu. Poltsikoetan ditugun mugikorrek garatzeko azkeneko 20 urteetan egin diren esfortzu teknologikoak mugikortasunaren deskarbonizaziora bideratu izan bagenu, gaur egun munduak bizi duen egoera ez zen hain larria izango. Aurrerapen teknologikoa geldiezin da, baina mundua hobetzeko esfortzuak norabide egokian egin behar dira.

Elkanok bere itzulia amaitu eta 500 urte beranduago, gizakiaren eronka zirkularra da berriz ere, eta mundua du protagonista. Baina orain mundu honetan modu jasangarrian bizitzea da eronka, mundua kaltetu gabe, baliabideen erabilera zirkularra eginez. Gure aurrekoek utzi dizkiguten erraldoiak Elkanok jaso zituenak baino askoz altuagoak dira, lurraren egoerari buelta emateko gai izango al gara?

■ Aimar Insausti Bello  
UPV/EHUko Ingeniaritza Mekanikoa saileko irakaslea



# Munduari bira 4-6 urteko haurren begiradetatik

Mundua borobila da baina ez gara buruz behera ibiltzen

Mundua imana bezala da, bestela ilargia eta eguzkia jungo ziren

Mundu hau [borobila] jostailuzkoa da, hau papelezkoa [mapa]

Gu Zubietan gaude. Zubieta Usurbil da/ Ez, Usurbil Zubieta ondoan dago/ Ni zubietan biziko naiz baina Donostia da/ Zubieta, Donostia, Usurbil hiru dira.

Espedizioa da bolkanak esplotatzea

Marinelak uretan ibiltzen dira

Barkuan dago janaria, arraina, kanoiak piratak hiltzeko, borrokatzeko

Badaudelako pertsona txintxuak eta gaiztuak eta gaiztoekin borrokatzeko.

[Moluka irlara iristen ari ziren] Tardatu zuten iristen minutu bat/ ordu bat/ egun bat baino gehiago?/ hiru egun baino gehiago

[Moluka irlen argazkia erakutsi] hau da Islas kanarias/ Santa Klara / Afrika

[Espeziak zer dira?] dira ondarra/ janaria/ sukaldean daude... ze pikante/ aji/ ze goxua [kanela]

[Espezia zakuak azaltzen diren argazkia erakutsi] hori dira pobreenak, Afrikan, buruan jarri, aurpegia beltza

[Trukea zer da?] da gauza bat aldatzea

[Portugaldarrak zein dira?] dira Joserren gurasoak, Aimarren ama

[Zer da esklabua?] Ez dakit/ barku bat/ gidatzen zuena.

[Zer iruditzen zaizue esklabu hartzea Enrique?] Bai [ondo iruditzen zait] / Neri ez zait gustatzen itsasontzi batean zigortuta egotea/

neri ere ez kalabozoan sartzea.

[Getariako argazkia erakutsi: Nongoa zen Elkano?] Donostia, Brasil, Asiakoa, Getaria

[Zein da arraroa?] Indioak ze ia ez doa horrela inor lumekin jantzita/ inor ez.

[Itsasoan ala ibaian zeuden?] Itsasoa eta ibaia berdina da/ Itsasoa gazia da

Zergatik esaten zuen bazekiela bidea eta gero ez zekien [Magallanese?] ]

Zer da lurmuturra?



Hiltzen ziren pertsonak jan egiten zituzten.

Tiburoiak eta arrain handiak daude [itsasoan]

Ke asko [arratoiak jaten zituzten itsasontzian azaldu zaie]

[Irlara iristean] denak hil ziren, Magallanes hil zen

[Elkano jarri zen kapitain]. Zein da hori?

Magallanes itsusia, Elkano politagoa

Txintxoa zen

[Zer gertatu zen moluka irletara iristean?] Gerra

Hartu eta eman [gauzak]

[Nora iritsi ziren bueltan?] Usurbilera.

[Marinelak itsasontzian iristen zirela erakutsi] Ez zeuden nekatuta!

[Eta emakumeak nun daude?] Hilda/ ez dakit/ ez zeuden

Munduari buelta eman zioten

[Zer gustatu zaizue?] Itsasontziak hil zirela

Hau ez da pelikula bat


Benetan existitzen zian?

■ Nahia Intxausti Intxausti  
UPV/EHUko Didaktika eta Eskola Antolakuntza  
saileko irakaslea

**Oharra:** jasotzen dira 4-6 urteko haurrek istorioaren kontaktari emandako erantzunak.

/ ikurra umeen erantzunak desberdintzeko erabili da.  
[kontalariaren hitzak/azalpenak]

# Mira-biraka Getaria aldean



Juan Sebastian Elkanok duela bost mende munduari bira eman zionaren aitzakian, hainbat lanen berri izan dugu udan. Lehena, Joseba Sarrionandiaren *Munduari bira eman zion ontzia*. Ez da usadiozko nobela bat; elkarrizketa modura eraikia baizik: neskato batek bere amama unibertsitateko Historia irakasleari galderak egin eta honen erantzunen bidez osatua. Neskatoak “benetako istorioa” eskatu eta galdera zoliei tira eta tira egin, eta amamak ahalik eta zorroztasun historiko handienaz erantzun. Besteak beste, honako gaiei egiten zaie aipamena liburuaren kontrazalean: “... botere harremanak, gorbatak, truke ekonomiko desorekatua, kultur bestelakotasuna, botoi baten prezioa, arrazismoa, memoria historikoa, lurraren propietatea, eskorbutoa, matxismoa, harrikoa egitearen garrantzia, globalizazioa...”. Nerabeek interesez irakurri dute liburua —ipuin modura, agian—; helduok ere ikusi diogu zer ikasi: Magallaes-Elkanoren mundu bira haren testuinguratze oparoa eta gai-ertz askori heltzen baitio.



Bigarrena, *72 ordu* izeneko polizia eleberria irakurri dut, Kepa Iribar kazetari getariarrak idatzia. Elkanoren testamentuaren lapurreta du oinarri, Getariako udaletxean ikusgai jarri dutena 2022ko irailaren 6an. Abiapuntu horretan josi du maratila osoa herrian lau urtean behin antzeztu ohi den Elkanoren lehorreratzearen ikuskizuna erakusteko. Xehetasunez deskribatzen ditu inguruak, pertsonak, bizimoduak... Nabaria da herriaren eta ikuskizunaren inguruabarrak barrutik ondo ezagutzen dituenak idatzia dela.

Azkenik, Beñat Gerekak zuzendutako dokumentala ere ikusi dut: *Itsasoak pizten gaitu* (Txikota ikusi/entzun produkzioa). Zinegile getariarrak “etxean” jarri du kamera: getariarrak dira protagonista. Moilako gorabeherek hartzen dute nagusitasuna, edo handik bideratutako jarduerak: emakume saregileak, behinolako arrantzaleen esanak, arrantzale getariar gazteen urritzea, arrantzale migranteek egiten duten lana, herriko jatetxeetako sukaldariek bertako arrantzari dioten estimazioa, arrain moten desagertzea... Getariaren nortasunaz ari da, itsasoari begira egon den herriak oraintsu arte erakutsi duen izaeraz. Transmisioaren kezka azaldu du Gerekak ikus-entzunezko honetan. Herria da ardatz, presente daude nola herritarrak hala etxeakoak. Azken urteetako aldaketek Getaria beste norabide batean jarri ote duten, arrakala sakonegiak sortu ote dituen, kezka hori du Beñat Gerekak.

Getariari miran eta biraka dabilta hiru autoreok, bakoitza bere abiaburua hartuta eta norantza batean. Hiru ertzetatik landutako begirada jaso dugu. Pozgarria izan da euskaraz eta geure-geuretik sortutako ekoizpenez gozatzea.

■ Beatriz Zabalondo Loidi

UPV/EHUko Ikus-entzunezko Komunikazioa eta Publizitate saileko irakaslea

# Biblioteka Txokoa

## Bidaia-liburuak, liburu-bidaiak

Elkanoren eta Magallanesen munduari itzulari buruzko telesail estreinatu berrian, Antonio Pigaffettak, espedizioaren kronikagileak, komandante portugaldarrari ematen dio bere burua onartua izateko arrazoa: balentria bukatzea lortuz gero, ez du ezertarako balioko inork kontatzen ez badu. Ziur aski erantzuna apokrifoa da, gidolizentzia bat, baina kontua da Pigafettak hiru urte geroago amaitu zuela bidaia, eta kronika bat idatzi zuela, testigantza baliotsua, Elkano liburuan aipatu ere egiten ez den arren.

Bidaia-literatura literatura bera bezain zaharra da ia (pentsatu Gilgameshen Poeman, Odisea-n edo Kixote-n bertan). Egia esan, bidaiaren presentzia etengabea da literaturan, inork espedizio, aventura eta esplorazioen narrazioa genero literario espezifiko zela pentsatu baino askoz lehenagotik. Horregatik, agian, zaila da bidaia-liburu bat zehaztasunez zer den asmatzea: ziur aski, asko izango dira nahi izan gabe.

Ikuspegi laxo horretatik, bidaia funtsezko elementua duten liburuak eta irakurketak proposatu nahi ditugu gaur. Epopeiatik hurbil dauden kronikak, Pigaffettarena bera bezala, bere garaiari hain berezkoa zaion zehaztasun deskriptibo horrekin; baina baita pieza intimistak ere, hurbileko eszenatokitatik garamatzatenak eta ia barne-bidaia bat direnak, hala nola Maria Belmonte pasealekua Euskal Herriko Kostaldean, paisaiak bizitzari berari buruz hausnartzeko aitzakia bihurtzen direna. Edo, asmo bibliofiloz, "Le guide impossible" bilduma ederraren liburukiak, hainbat garaitako bidaiari eta idazleen kontakizunekin Franco Maria Ricci argitaratutako liburu-saila, bikain ilustratua. Eta, azkenik, Alberto Mangel eta Giani Guadalupiren "Alegiazko lekuen gida", hainbat literatura egile-ezagunen fantasiak sortutako lurraldeen erreperorioa.

## Libros de viaje, viajes de libro

En la serie televisiva recientemente estrenada sobre la vuelta al mundo de Elcano y Magallanes, Antonio Pigaffetta, cronista de la expedición, le da al comandante portugués el motivo por el cual debe permitirle enrolarse: si consigue terminar la hazaña, de nada servirá si nadie lo cuenta. Con seguridad, la respuesta es apócrifa, una licencia de guión, pero el hecho es que Pigafetta terminó el viaje tres años después y redactó una crónica del mismo que constituye un valioso testimonio, pese a que Elcano ni tan siquiera es mencionado en el libro.

La literatura de viajes es casi tan antigua como la literatura misma (piénsese en el Poema de Gilgamesh, la Odisea, o el mismísimo Quijote). En realidad, es la presencia del viaje lo que constituye una constante en la literatura, desde mucho antes de que a nadie se le ocurriera que la narración de expediciones, aventuras y exploraciones fuera un género literario específico. Quizás por eso es difícil determinar qué es con propiedad un libro de viajes: seguramente muchos lo son sin haberlo pretendido.

Desde esta perspectiva laxa hoy queremos proponer libros y lecturas en las que el viaje es un elemento esencial. Crónicas próximas a la epopeya, como la del mismo Pigaffetta, con esa minuciosidad descriptiva tan propia de su época; pero también piezas intimistas que nos llevan por escenarios cercanos y que son casi un viaje interior, como el paseo de María Belmonte por la Costa Vasca, en el que los paisajes se convierten en excusa para reflexionar sobre la vida misma. O, con ánimo bibliófilo, los tomos de la preciosa colección "Le guide impossible", serie de libros publicada por Franco Maria Ricci con relatos de viajeros y escritores de distintas épocas exquisitamente ilustrados. Y, por último, la "Guía de lugares imaginarios" de Alberto Mangel y Giani Guadalupi, un repertorio de territorios creados por la fantasía de conocidos autores literarios.

## Gomendatutako materiala


- *Pigafetta, A.(2008). Primer viaje alrededor del mundo (Ser. Diferencias).*  
[www.Linkgua.com](http://www.Linkgua.com).  
<https://elibro-net.ehu.idm.oclc.org/es/ereader/eHu/167530>

## Gomendatutako materiala



- **Belmonte Barrenechea, María. (2017). Los senderos del mar: un viaje a pie. Acantilado.**

<https://ehu.on.worldcat.org/oclc/995526337>



- **Guide impossibili. (1985-). F.M. Ricci**

Bilduma hau gure online katalogoan erregistratuta ez dugun arren, Gipuzkoako Campuseko Bibliotekako Ikaskuntza Aretoan kontsulta daiteke. Liburu bakoitzak leku mitiko eta urrunen batera garamatza, iraganeko idazle, bidaiari eta ilustratzaileen eskutik. Gure bildumako altxorretako bat, zalantzarik gabe. **Kokapena: E-(082)908 GUI**

Aunque no tenemos registrada esta colección en nuestro catálogo online, está disponible para su consulta en la Sala de Aprendizaje de la Biblioteca del Campus de Gipuzkoa. Cada volumen nos lleva a algún lugar mítico y remoto, de la mano de escritores, viajeros e ilustradores del pasado. Sin duda, uno de los tesoros de nuestra colección. **Signatura: E-(082)908 GUI**

<https://www.francomariaricci.com/it/libri/le-guide-impossibili-collana-completa>

- **Manguel, A., Guadalupi, G.(1992). Guía de lugares imaginarios. Alianza.**

<https://ehu.on.worldcat.org/oclc/628110318>

“Nueva York, Calcuta, Madrid, son sin duda ciudades extraordinarias, pero no pueden compararse a la Ciudad Esmeralda de Oz, cuyos ciudadanos deben usar cristales verdes para percibirla en todo su esplendor, o a la Ciudad de los Césares, prehispánica metrópolis americana, fuente de la primera democracia del Nuevo Mundo. Somalia o Lichtenstein interesan al turista; pero palidecen ante las maravillas de Narnia o la isla del Dr. Moreau.”



@EHUkultura

